

ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO
DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2019ko abenduaren 27a, ostirala**

Ordua: **12:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2019.11.18).

2.- ZIZURKILGO TOKIKO POLIZIA ZERBITZUA SORTU ETA HORREN ONDORIOZ PLANTILA ORGANIKOAN ETA LANPOSTU ZERRENDAN EGOKITZAPENAK.

3.- 2019ko AURREKONTUAREN 1/2019 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

4.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA EUSKARAREN EGUNA DELA ETA.

5.- EH BILDUK AURKEZTURAKO MOZIOA: "ORAIN PRESOAK! - EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA".

6.- UDAL TALDE SOZIALISTAK PIKTOGRAMEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

7.- EH BILDUK AURKEZTURAKO MOZIOA: ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAREN JARDUNAGATIK KEZKA ETA EZINEGONA.

8.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2019/265tik 2019/298ra).

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **27 de Diciembre de 2.019, viernes**

Hora: **12:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (18.11.2019).

2.- CREACION DEL SERVICIO DE POLICIA LOCAL DE ZIZURKIL Y ADECUACION CORRESPONDIENTE DE LA PLANTILLA DE PERSONAL Y LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO.

3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS N° 1/2019 DEL PRESUPUESTO DE 2.019


4.- DECLARACION INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION CON EL DIA DEL EUSKERA.

5.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU: "ORAIN PRESOAK! - EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA".

6.- MOCION PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA SOBRE PICTOGRAMAS.

7.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU: PREOCUPACION Y MALESTAR POR LA INCINERADORA DE ZUBIETA.

8.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (265/2019 al 298/2019).



ZIZURKILGO UDALA

9.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2019ko abenduaren 23an


Alkatea.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 23 de Diciembre de 2.019

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2019ko ABENDUAREN 27an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 27 DE DICIEMBRE
DE 2.019**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

Iker Urruzola Aizpurua (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Ivan Lizarraga Galdos (EH Bildu)

Trinidad Altimasberez Borja (E.A.J.-P.N.V.)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Elixabete Bello Martija (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (G.M. Socialista – U.T. Sozialista)

José María Luengo Zapirain (EH Bildu)

María Concepción Fernández Osés (G.M. Socialista – U.T. Sozialista)

Francisco Javier Pellejero Saralegi (EH Bildu)

Matilde Navas Los Arcos (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemeretzi abenduaren hogeita zazpiko hamabi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las doce horas del día veintisiete de Diciembre de dos mil diecinueve, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.


Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKO BADA
(2019.11.18).**

Udalbatzak, aho batez erabaki du 2019ko azaroaren 18an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(18.11.2019).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 18 de Noviembre de 2.019



ZIZURKILGO UDALA

2.- ZIZURKILGO TOKIKO POLIZIA ZERBITZUA SORTU ETA HORREN ONDORIOZ PLANTILA ORGANIKOAN ETA LANPOSTU ZERRENDAN EGOKITZAPENAK.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duen ekainaren 27ko 7/2019 Legea onartzearen ondorioz izapidetutako espedientearen edukiaren berri eman da. Lege honek 2019ko uztailaren 10etik aurrera indarra hartu du.

117. artikuluan xedatutako ahalmenaren babespean, afektatutako langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren, Zizurkilgo Udaltzaingoaren Zerbitzua sortuko du Udal honek, eta Zortzigarren Xedapen Iragankorrean ezarritako epean, dagozkion langile-egokitzapenak egingo ditu, lantalde organikoa eta lanpostuen zerrendari eragiten dietenak.

Espedientearen jasota dago, Perstonaleko Batzorde Informatzaileak 2019ko abenduaren 27an eginadako bileran onartutako irizpena.

Egitura-egokitzapenek ez du suposatu beharrik berregituraketak eragindako langileen ordainsari-igoerarik. Hala ere, funtzionarioen ordezkari sindikalek eta Udalak negoziatu dezakete.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 11 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 2 Sozialista U.T.arenak).
- Aurrakoto botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, Udalbatzak, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- Zizurkilgo Udaltzaingoaren Zerbitzua sortzea, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duen ekainaren 27ko 7/2019

2.- CREACION DEL SERVICIO DE POLICIA LOCAL DE ZIZURKIL Y ADECUACION CORRESPONDIENTE DE LA PLANTILLA DE PERSONAL Y LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO.

Se da cuenta del contenido del expediente tramitado al efecto con ocasión de la aprobación de la Ley 7/2019, de 27 de Junio, de quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco, con vigencia desde el 10 de Julio de 2.019

Al amparo de la potestad regulada en el artículo 117, tras negociar con el representante sindical de los trabajadores afectados, este Ayuntamiento va a crear el Servicio de Policía Local de Zizurkil y en el plazo establecido por la Disposición Transitoria Octava va a efectuar las correspondientes adecuaciones de personal, que afectan a la plantilla de personal y a la relación de puestos de trabajo.

Consta en el expediente el dictamen aprobado en reunión celebrada el día 27 de Diciembre de 2.019 por la Comisión Informativa de Personal.


Las adecuaciones estructurales no tienen por qué suponer un incremento retributivo de los trabajadores afectados por la reestructuración, sin perjuicio de las negociaciones que pueda haber entre los representantes sindicales de los funcionarios y el Ayuntamiento.

Vista la propuesta presentada, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 11 (6 de Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, el Pleno, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Crear el Servicio de Policía Local de Zizurkil, al amparo de la potestad regulada en el artículo 117 de la Ley 7/2019, de 27 de junio, de



ZIZURKILGO UDALA

Legeko 117. artikuluan xedatutako ahalmenaren babespean eta afektatutako langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren. Erabaki honek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Bigarrena.- Angel Zubizarreta Lertxundi jauna zerbitzu honen Buru Koordinatzailea izendatzea, izendapen aske bidez eta zerbitzukideen artean horrela azaltzen delako.

Hirugarrena.- 7/2019 Lege honen Zortzigarren xedapen iragankorrak agindutakoa betetzeko, eta kontutan harturik zerbitzua egun hiru langileek osatzen dutela, eta hirurak 10 urte baino gehiagoko lan eskarmentua dutela, Lantalde organikoan eta Lanpostuen zerrendan, Akta honen I Eranskinean aipatzen diren aldaketak onartzea.

Laugarrena.- Egitura-egokitzapenek ez du suposatu beharrik berregituraketak eragindako langileen ordainsari-igoerarik. Hala ere, funtzionarioen ordezkari sindikalek eta Udalak gaia hau negoziatu dezakete.

Bosgarrena.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eta interesdun langileei erabaki honen berri ematea, adieraziz bere kontra egiteko bidezkoak diren helegite moduak eta epeak.

3.- 2019ko AURREKONTUAREN 1/2019 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Zizurkilgo Udal honetako 2019ko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco y tras negociarlo con el representante sindical de los trabajadores afectados. Este acuerdo surtirá efectos a partir del día 1 de Enero de 2.020

Segundo.- Nombrar a Don Angel Zubizarreta Lertxundi como Jefe Coordinador del servicio, mediante libre designación por ser la persona con esa denominación de los componentes del servicio.


Tercero.- En cumplimiento de lo dispuesto por la Disposición Adicional Transitoria Octava de la Ley 7/2019 y habida cuenta que al día de hoy el servicio lo forman tres trabajadores y, ya que los tres tienen una experiencia laboral superior a diez años, aprobar las modificaciones en la Plantilla orgánica y en la Relación de puestos de trabajo, que se especifican en el Anexo I del presente Acta.

Cuarto.- Las adecuaciones estructurales no tienen por qué suponer un incremento retributivo de los trabajadores afectados por la reestructuración, sin perjuicio de las negociaciones que pueda haber entre los representantes sindicales de los funcionarios y el Ayuntamiento.

Quinto.- Dar cuenta del presente acuerdo al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y a los trabajadores interesados, con advertencia de los recursos y plazos que proceden contra el mismo.

3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS Nº 1/2019 DEL PRESUPUESTO DE 2.019

Dada lectura del expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto de 2.019 de este Ayuntamiento de Zizurkil.



ZIZURKILGO UDALA

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaizta honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 11 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 2 Sozialista U.T.arenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1/2019 zenbakiko Kreditu Aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta Akta honen II Eranskinean argitaratzen den kapituluko laburpenaren arabera.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontua onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA EUSKARAREN EGUNA DELA ETA.

Akta honen III Eranskinean jasota dago aurkeztutako Adierazpena.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe favorable y propuesta de aprobación formulado por la Comisión Informativa de Hacienda.

Seguidamente y vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 11 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 2 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.


Por lo que la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante créditos adicionales nº 1/2019, que afecta al Presupuesto del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y resumen por capítulos que se detalla en el Anexo II de este Acta.

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto.

4.- DECLARACION INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION CON EL DIA DEL EUSKERA.

La Declaración que se presenta es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.



ZIZURKILGO UDALA

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 11 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 2 Sozialista U.T.arenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Adierazpena onartu egiten du.

5.- EH BILDUK AURKEZTURAKO MOZIOA: “ORAIN PRESOK! - EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA”.

Akta honen IV Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 2 (2 Sozialista U.T.arenak).

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartu egiten du.

Udal talde Sozialistak azaldu du abstenitu egin dela, nahiz eta presoen hurbilketaren alde egon eta alderdi gisa hainbat mahaitan lanean ibili hori hala izateko, ez duelako bat egiten mozioan aipatzearekin Espainiako eta Frantziako Gobernuak ez dituztela aintzat hartzen giza eskubideak.

6.- UDAL TALDE SOZIALISTAK PIKTOGRAMEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 11 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 2 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Declaración presentada.

5.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU: “ORAIN PRESOK! - EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA”.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.


La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (2 del G.M. Socialista).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

El grupo municipal Socialista explica su abstención por el hecho de que, aunque estén a favor del acercamiento de presos y como partido trabajan en diferentes mesas para propiciarlo, no comparten la valoración que se realiza en la Moción de que los gobiernos español y francés no cumplen con los derechos humanos.

6.- MOCION PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA SOBRE PICTOGRAMAS.



ZIZURKILGO UDALA

EH Bilduk eskatu du mozioa egokitzea, eurek aurkeztutako zenbait aldaketarekin; besteak beste, eskatu du garapenean “Gautena - Autismoaren Gipuzkoako Elkarte” zentroa sartzea.

Mozioa egokitu ostean, Udalbatzak bozketa egin du, eta emaitza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 11 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 2 Sozialista U.T.arenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako mozioa onartzea erabaki du, aurrez azaldutako aldaketa sartuta. Hortaz, osoko bilkurak onartutako mozioa akta honetako V. Eranskinean ageri dena da.

7.- EH BILDUK AURKEZTURAKO MOZIOA: ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAREN JARDUNAGATIK KEZKA ETA EZINEGONA.

Usurbilgo Udalak bidalitako idatziarekin batera aurkeztutako mozioa akta honetako VI. Eranskinean ageri da.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 5 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 2 Sozialista U.T.arenak).
- Abstentzioak: 0.

Hori dela eta, Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du

E.A.J.-P.N.V.k bere aurkako botoa arrazoi hauengatik justifikatzen du:

EH Bildu solicita se adecue la Moción con algunas modificaciones que ellos presentan y que, entre otras, se refieren a la inclusión del centro “Gautena – Asociación Guipuzcoana de Autismo” en el desarrollo de la misma.

Una vez adecuada la Moción, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 11 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 2 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada con la modificación comentada. Así, la aprobada por el Pleno es la que se refleja en el Anexo V del presente Acta.

7.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU: PREOCUPACION Y MALESTAR POR LA INCINERADORA DE ZUBIETA.


La Moción que se presenta junto con el escrito remitido por el Ayuntamiento de Usurbil para su presentación, es la que se refleja en el Anexo VI del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de EH Bildu).
- Votos en contra: 5 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 2 del G.M. Socialista).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. justifica su voto en contra de la Moción por el siguiente motivo:



ZIZURKILGO UDALA

Aurten, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, hiritar gehien ordezkatzan dituzten talde politikoen aldeko botoekin, hurrengo urtetarako hiri hondakin kudeaketa Plana onartu dute. Dokumentu horrek PIGRUG 2019-2030 izena du, eta Europa eta mundu mailan proposatzen diren hondakinak kudeatzeko sistema egokienak proposatzen ditu, hondakin kudeaketa hierarkia jarraituz, hau da, 1) sormen gutxitzea, 2) berrerabiltzea, 3) birziklatzea, 4) balorizatu eta, azkena geratzen dena, 5) isurtzea.

Zubietako azpiegiturek hierarkia hau jarraitzen dute, prozesuari amaiera ematen baitio eta zaborren kudeaketaren zikloari itxiera emanez. Beraz, bakarrik, berrerabili edo beste era batean balorizatu ezin diren hondakinak erretzen ditu, energia jasangarria sortzeko. Hau da Europak agintzen duena eta hau da hain zuzen ere Gipuzkoan egingo dena. Gure hondakinak beste nonbaitera bidali edota lur azpian ezkutatu ordez, beste nonbaitera begiratzen dugun bitartean, aurreko legealdietan EH Bilduk proposatzen zuen bezala, Gipuzkoak jasangarritasun bidearen aldeko apustua egin du. Eta bide hori jorratuz, klima aldaketaren kontrako borrokan gure parte egiten dugu.

Balorazio energetikoaren prozesuak garatuta dauden herrialde guztietan erabiltzen dira, eta atzeratuta daudenak, berriz, ez.

Zaborren debatea aspaldian ez dago gizartean eta bakarrik alderdi politiko bat edo bi temati jarraitzen dute gai honekin. Horregatik, guk ez dugu zentzugabeko salaketaren bidea jorratuko, baizik eta gizartearekin batera jasangarritasun bidea jarraitu.

Udal talde Sozialistak ere ez du onartu mozioa, bere esanetan sistema hori gehiengo handi batek onartu baitu Gipuzkoako Foru Aldundian, eta gaur egun hondakinen tratamenduan aurreratuen dauden herrialde askotan erabiltzen baita. Gainera, bere ustez egokiagoa da gure zaborra beste lurralde batzuetara bidaltzea baino.


Las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado este año, con el voto favorable de los grupos políticos que representan a la mayoría de ciudadanos, el Plan de gestión de residuos urbanos para los próximos años. Dicho documento se llama PIGRUG 2019-2030, y propone los sistemas más adecuados de gestión de residuos que se proponen en Europa y en el mundo, siguiendo la jerarquía de gestión de residuos: 1) minimización de la generación de residuos, 2) reutilización, 3) reciclaje, 4) valorización, y, por último, 5) el vertido.

Las infraestructuras de Zubieta siguen dicha jerarquía, porque llevan a cabo todo el proceso y cierran el ciclo de gestión de residuos. Por lo tanto, sólo queman los residuos que no se pueden reutilizar o no se pueden valorizar de otro modo, para crear energía sostenible. Eso es lo que dictan los mandatos de Europa, y es lo que se hace en Gipuzkoa. En vez de enviar nuestros residuos a algún otro lugar o en vez de esconder los residuos bajo el suelo, mirando a otro lado, tal como proponía EH Bildu en la anterior legislatura, Gipuzkoa ha apostado por la sostenibilidad. Y, siguiendo ese camino, actuamos en la lucha contra el cambio climático.

Los procesos de valorización energética se utilizan en todos los países desarrollados, pero no en los países subdesarrollados.

El debate sobre los residuos no está actualmente en la sociedad, y sólo continúan un grupo político o dos obstinados con ese asunto. Por ello, nosotros no seguiremos el camino de las denuncias insensatas, si no que seguiremos el camino de la sostenibilidad, de la mano de la sociedad.

También el grupo municipal Socialista manifiesta su rechazo a la Moción ya que este sistema ha sido aprobado por una clara mayoría en la Diputación Foral de Gipuzkoa y actualmente se utiliza en muchos de los países más avanzados en tratamiento de residuos y es mejor opción que el envío de nuestra basura a otros territorios.



ZIZURKILGO UDALA

NBERen iritziz ere hondakinak erretzea aukera egokia da, tratamendu horretatik sortzen den energia berriztagarria aprobetxatzen baita.

8.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (265/2019tik 298/2019ra).

2019ko azaroaren 14tik abenduaren 20ra Alkateak sinatutako 265/2019tik 298/2019ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatearen Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hamabi orduak eta berrogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.




Incluso la ONU considera que la quema de residuos es una opción correcta ya que se aprovecha la energía renovable que surge de dicho tratamiento.

8.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (265/2019 al 298/2019).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 265/2019 al 298/2019 firmados por la Alcaldía entre el 14 de Noviembre y el 20 de Diciembre de 2.019, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las doce horas y cuarenta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA -- ANEXO I

PLANTILLA ORGANIKOAN ALDAKETAK MODIFICACIONES EN PLANTILLA ORGÁNICA

Oraingo Egoera – Situación actual


ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA - SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES

Izena Denominación	Kopurua Plazas	Taldea Grupo	Egoera Situación
Udaltzainak eta hauen laguntzaileen mota	3	C2	Jabetzan
Udaltzain laguntzailea			
Clase Policía Municipal y sus Auxiliares	3	C2	Propiedad
Auxiliar de policía municipal			

2019.12.27 Plenoko erabakiaren ondorengo egoera berria Nueva situación tras el acuerdo del Pleno del 27.12.2019

ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA - SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES

Izena Denominación	Kopurua Plazas	Taldea Grupo	Egoera Situación
Udaltzaingoaren zerbitzuko agenteak	3	C1	Jabetzan
Agentes del servicio de Policía local	3	C1	Propiedad



ZIZURKILGO UDALA

LANPOSTUEN ZERRENDA - RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO
DE CARRERA

Oraingo Egoera – Situación actual


Identifikazioa							Eskaturiko baldintzak								
LK	Izena	D	PS	DM	L O	O. Ber.	T	E	AZP	TIT.	Baldintza bereziak	HE	Der. Data.	Oharrak	
12	Segurtasuna, Trafikoa eta Hiritarren babesa Saileko Burua	1	L	3	18	21.568,26	C2	AB	5.1	200	BTP gida baimena	3	2004-06	Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna	
13	Udaltzain Laguntzailea	2	L	3	14	16.536,34	C2	AB	5.1	200	B-1 gida baimena	2	2004-06	Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna	

Identificación							Requisitos exigidos								
CP	Denominación	D	SP	DE	CD	C. Especif.	G	E	SUB	TIT.	Requisitos específicos	PL	Fecha Prec.	Observaciones	
12	Jefe del Departamento de Seguridad, Tráfico y Protección Ciudadana	1	C	3	18	21.568,26	C2	AE	5.1	200	Carnet de conducir BTP	3	06-2004	Disponibilidad absoluta para el servicio	
13	Auxiliar de la Policía Municipal	2	C	3	14	16.536,34	C2	AE	5.1	200	Carnet de conducir B-1	2	06-2004	Disponibilidad absoluta para el servicio	

2019.12.27 Plenoko erabakiaren ondorengo egoera berria Nueva situación tras el acuerdo del Pleno del 27.12.2019

Identifikazioa							Eskaturiko baldintzak								
LK	Izena	D	PS	DM	L O	O. Berezia	T	E	AZP	TIT.	Baldintza bereziak	HE	Derrig. Data.	Oharrak	
12	Udaltzaingoaren Zerbitzuko Burua	1	L	3	18	19.773,74	C1	AB	5.1	200	BTP gida baimena	3	2004-06	Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna	
13	Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agentea	2	L	3	14	14.741,82	C1	AB	5.1	200	B-1 gida baimena	2	2004-06	Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna	

Identificación							Requisitos exigidos								
CP	Denominación	D	SP	DE	CD	C. Específico	G	E	SUB	TIT.	Requisitos específicos	PL	Fecha Precept.	Observaciones	
12	Jefe del Servicio de Policía Local	1	C	3	18	19.773,74	C1	AE	5.1	200	Carnet de conducir BTP	3	06-2004	Disponibilidad absoluta para el servicio	
13	Agente del Servicio de Policía Local	2	C	3	14	14.741,82	C1	AE	5.1	200	Carnet de conducir B-1	2	06-2004	Disponibilidad absoluta para el servicio	




ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA -- ANEXO II

1/2019 KREDITU ALDAKETAREN LABURPENA
RESUMEN DE LA MODIFICACION DE CREDITOS 1/2019

	GASTUEN GEHIKUNTZA INCREMENTO GASTOS	GASTUEN GUTXITZEA DISMINUCION GASTOS	FINANTZIAZIOA SARRERAK FINANCIACION INGRESOS
1 KAPITULUA	40.360 €	- €	
2 KAPITULUA	72.902 €	- €	20.000 €
3 KAPITULUA	- €	- €	- €
4 KAPITULUA	3.250 €	15.000 €	33.330 €
5 KAPITULUA	- €	- €	
(1-5)	116.512 €	15.000 €	53.330 €
6 KAPITULUA	53.040 €	79.350 €	- €
7 KAPITULUA	- €	- €	5.000 €
8 KAPITULUA	350 €	- €	- €
9 KAPITULUA	150.000 €	- €	150.000 €
(6-9)	203.390 €	79.350 €	155.000 €
REMANENTE 2018			17.222 €
GUZTIRA-TOTAL	319.902 €	94.350 €	225.552 €



III ERANSKINA -- ANEXO III

ehbildu
ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

EH Bilduren erakunde adierazpena Euskararen Eguna dela eta

2019 ABE. 20

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia

1442

Zioa

Aurten, 60 urte betetzen dira Eusko Ikaskuntzak, 1949. urtean, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzea erabaki zuenetik. Hirurogei urte igaro arren, oraindik orain, Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak bere horretan dirau.

Egia da euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan, eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto, baina ez aski.

Egia da, azken urteotan, lortu dugula Euskal Herriko lurralde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea ere. Egun, inoiz ez bezala, euskaldunok berariazko erakundeak dauzkagu: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik; Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik; eta Nafarroa Garaian, azkenik. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik. Eta, gaur gaurkoz, asko egin dezakegu hainbat eremutatik hasita.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren arazo behinena, transmisiotik harago, erabilera dela, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela, alegia. Baina euskararen erabilera, xedea bada ere, ez da areagotuko, oinarrian ez badu hiltun talde zabala, sendoa, trinkoa eta engaiatua.

Hizkuntza gutxitu baten normalizazio prozesuaz ari garenean bi elementu izaten ditugu beti buruan. Batetik, hizkuntza hori normalizatzeko pertsonen hizkuntza gutxitua ezagutu behar dute, eta, bestetik, pertsona horiek hizkuntza erabili ahal izateko espazioak behar dituzte. Biak ala biak dira beharrezkoak, baldin eta hizkuntza hori normalizatuko bada.


Horregatik diogu lurgune euskaldunek edo arnagune geografikoek berebiziko garrantzia dutela euskararen normalizazio prozesuan. Euskaldun kopuru handia duten herriak eta auzoak dira euskaraz normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak, eta normalizatutako edozein hizkuntzak bete beharko lituzkeen funtzioak betetzen ditu euskarak, herri horien egunerokoan.

Baina urrats berriak egin behar dira, lurgune euskaldunen eta arnaguneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatuz. Izan ere, eremu horiek sendotzean eta zabaltzean datza normalizazio prozesu orokorraren arrakasta, hein handi batean.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte bizitzaren erdigunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motor nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarpenaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalizaziorik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik. Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Erakunde adierazpen proposamena:




ZIZURKILGO UDALA

ehbildu

Hori horrela, ZIZURKILGO UDAL erakunde honek, honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2019ko Euskararen Nazioarteko Egun honetan:

1. Erakundeak lehentasunez erabiltzea euskara, bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan.
2. Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza irizpideak zehaztea eta ezartzea.
3. Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
4. Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea. Hala nola, softwarea eta oinarrizko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
5. UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
6. Urte askotako hitzarmenak sustatzea euskarazko tokiko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko.
7. Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
8. Kirol arloa euskalduntzeko bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
9. Gazteentzako euskarazko aisialdi zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
10. Familia eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
11. Migratzaileentzako laguntza ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
12. Eragileen bitartez enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetakoko hizkuntza izan dadin.
13. Jarduera arau emailea garatzea eragileekin batera, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
14. Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.



ORAIN PRESOAK!

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

2019 ABE. 20

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1441

ZIZURKILGO UDALA

Urtero bezala, neguan murgildu garen honetan, gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Urteko azkenak eta urte berriko lehen egunak, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabeko pertsonak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, honako hauek herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko egunak ere badira.

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek eta beren senide eta lagunak pairatzen dituzten eskubide urraketak gaitzesten ditugu eta espainiar eta frantziar Estatuei eskubide hauek bermatzeko neurriak har ditzatela eskatzen diegu. Herritarren gehiengoak bat egiten du aldarri horrekin eta horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu erakunde publikoak eta herritarrak bat eginda kalera irtetea eta mobilizatzea.

Aiztondoko udal ordezkariak bat egiten dugu Sare herritarrak martxan jarritako "Orain presoak" herri dinamikaekin eta une hauetan gure babesa adierazi nahi diogu euskal presoek senideak biltzen dituen Etxerat elkarteari ere.

Honenbestez, datorren **abenduaren 31n arratsaldeko 18:30etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Amasa-Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila** deitzea erabaki dugu.

Hauek dira manifestazio honen bidez, Aiztondoko udal ordezkariak espainiar eta frantziar Estatuei helarazi nahi dizkiegun oinarritzko eskaerak:

1 - Dispersioa amaitzea eta euskal presoak euskal herriratzea.

Beharrezkoa da presoek eta batez ere beren familia eta lagunei bidegabeko zigor erantsia ezartzen dien sakabanaketa politikarekin behin betiko amaitzea.

2 - Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea.

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxean egoteko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden presoek berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

3 - 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.




TOLOSALDEA

Teodoro Hemandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus

Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9 bidea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil - Tel: 943 69 10 12

www.zizurkil.eus



¡AHORA LXS PRESXS! LXS PRESXS VASCXS A EUSKAL HERRIA

ZIZURKILGO UDALA

Como todos los años, en esta época en que nos hallamos inmersos en el invierno, han llegado al valle de Aiztondo los días especiales de las fiestas navideñas. Los últimos días del año y los primeros del nuevo año son días para estar con familia y amigxs, dar la bienvenida a Olentzero, reencontrarse con personas a las que no se ha visto en tiempo, abrazarse, gozar del ambiente del municipio, hacer comidas placenteras... Del mismo modo, son también días para recordar a quienes se hallan lejos y no pueden estar entre nosotrxs.

Lxs representantes municipales de Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul y Alkiza condenamos la vulneración de derechos que sufren lxs presxs vascxs y sus familiares y amigxs y solicitamos a los Estados español y francés que tomen medidas para garantizar los mismos. La mayoría de la población se une a esta reivindicación y por ello estimamos necesario que las instituciones públicas y los ciudadanos salgamos a la calle y nos movilizemos conjuntamente.

Lxs representantes municipales de Aiztondo nos unimos a la dinámica popular "Orain presoak" puesta en marcha por Sare Herritarra y en estos momentos deseamos manifestar nuestro apoyo también a la asociación Etxerat que reúne a los familiares de lxs presxs vascxs.

Por tanto, hemos decidido convocar una **manifestación silenciosa** para el próximo día **31 de diciembre**, a las **18:30h. de la tarde**, que **partirá de la plaza Joxe Arregi de Zizurkil y terminará en la Erreboteko Plaza de Amasa-Villabona**.

Estas son las peticiones básicas que deseamos hacer llegar lxs representantes municipales de Aiztondo a los Estados español y francés:

1. Acabar con la dispersión y traer a lxs presxs vascxs a Euskal Herria.


Es necesario terminar de una vez por todas con la política de dispersión que impone un castigo añadido e injusto a lxs presxs y, sobre todo, a sus familias y amigxs.

2. Excarcelar a lxs presxs que sufren enfermedades graves o incurables.

Lxs presxs que padecen enfermedades incurables tienen todo el derecho a salir de prisión y estar en el hospital más cercano a su domicilio, lo cual está recogido en la legislación española. Por lo tanto, exigimos que se respete este derecho y la inmediata excarcelación de lxs presxs que se encuentran gravemente enfermxs.

3. Excarcelar a lxs presxs que tengan más de 70 años.





ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

2019 ABE. 20

V ERANSKINA

SARREREN ERREGISTRO
Zenbakia 1434

ANEXO

PSE-EE
PSOE



MOCIÓN PRESENTADA POR G.M.SOCIALISTA-U.T.SOZIALISTA

La presente iniciativa tiene como objetivo facilitar la Comunicación y comprensión a aquellas personas con grandes barreras para el aprendizaje, la comunicación y /o las relaciones sociales, así como la atención directa a sus familias en nuestro entorno municipal.

Basándonos en la iniciativa de la asociación ADIMIR (autorizada por Asociación Navarra de Autismo ANA): Asociación de personas con discapacidad física, psíquica y sensorial de Montcada i Reixac ,cuyos objetivos marcados son:

- 1.- Favorecer la promoción de la autonomía personal y la atención de las personas en situación de dependencia relacionada con la falta de autonomía física, psíquica, intelectual o sensorial del municipio, su integración e inclusión en todos los ámbitos sociales a lo largo de su vida educativa, cultural, deportiva y laboral, fortaleciendo la comunicación y la participación en actividades propias de nuestro municipio.
- 2.- Fomentar la sensibilidad de los poderes públicos y privados, así como del conjunto de la sociedad.
- 3.- Eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación.
- 4.- Instaurar un modelo municipal de trabajo dirigido a las personas en situación de discapacidad y/o dependencia.
- 5.- Elaborar una campaña donde todos los edificios municipales sean reconocidos fácilmente mediante pictogramas.


OBJETIVO:

Pretendemos fomentar los derechos, la igualdad y la participación plena en nuestro municipio de Zizurkil de las personas con capacidades diferentes. Las personas con trastorno del espectro autista, o que no saben leer, utilizan los pictogramas en sus entornos naturales: hogar, terapéutico, educativo etc., pero para salir a la calle, dentro de su población, necesitan que todos los lugares estén señalizados con los mismos pictogramas que ellos llevan en su libreta de comunicación, para que su comprensión del mundo sea mayor.

El Objetivo es facilitar la accesibilidad a la información, igualdad de oportunidades, para todas las personas que no tienen lenguaje adquirido, mediante pictogramas en edificios y servicios públicos.

Al mismo tiempo, queremos que los establecimientos que ejercen su actividad dentro de nuestro municipio se adhieran a la iniciativa mediante la invitación desde nuestro ayuntamiento para que instalen pictogramas en sus actividades y así sepa reconocer cualquier persona su actividad.

En Zizurkil, a 17 de diciembre de 2019



ZIZURKILGO UDALA


Zizurkilgo U.T. Sozialistaren testua oinarri harturik eta helburu orokorrekin bat eginik:

- Gaitasun desberdinak dituzten pertsonen eskubideak, berdintasuna eta Zizurkilgo gure udalerrian erabateko parte-hartzea sustatzea.
- Autismoaren espektroko nahasmendua duten edo irakurtzen ez dakiten pertsonen piktogramak erabiltzen dituzte beren ingurune naturaletan: etxean, terapeutikoan, hezkuntzan, etab., baina kalera ateratzeko, beren populazioaren barruan, leku guztiek beren komunikazio-libretan daramatzaten piktograma berberekin seinaleztatzea, munduaren ulermena handiagoa izan dadin.
- Informazioa eskuratzeko erraztasunak ematea, aukera-berdintasuna, eskuratutako hizkuntza ez duten pertsona guztientzat, eraikin eta zerbitzu publikoetan piktogramak eginez.
- Zizurkilen dauden merkataritza eta ostalaritzak ere bat egin dezaten nahi dugu, piktogramak jartzeko gonbitea eginez, eta horrela, edozein pertsonak bere jarduera onartzen jakin dezan.

Zizurkilgo Udala Gipuzkoako GAUTENA zentruarekin harremanetan jarriko da ANA (Asociación navarra de Autismo)k baimendu dezan eta 2020.urtean zehar lanketa berezi bat egingo du, ondorengo helburu hauekin:

- Zizurkilen sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea
- Autonomia fisiko, psikiko, intelektual edo sentsorialik ezarekin lotutako autonomia pertsonala eta mendetasun-egoeran dauden Zizurkilgo pertsonen arreta sustatzea, bai eta pertsona horiek gizarteko esparru guztietan integratzea eta sartzea ere, hezkuntza, kultura, kirol eta lan-bizitzan zehar, gure udalerriko berezko jardueretan komunikazioa eta parte-hartzea indartuz.
- Arkitektura eta komunikazio oztopoak kentzeko urratsak ematen hastea.
- Desgaitasun eta/edo mendetasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako lan eredu bat ezartzeko bide-orri bat finkatzea.
- Udal-eraikin eta herriko merkataritza eta ostalaritza guztiak piktogramen bidez erraz ezagutzeko kanpaina bat egitea.

Zizurkilen, 2019ko abenduaren 27an



ZIZURKILGO UDALA

VI ERANSKINA -- ANEXO VI

ZIZURKILGO UDALA

2019 ABE. 23

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1456

Erraustegiaren jardunagatik kezka eta ezinegona

ZIOA

2019ko abenduaren 3an Zizurkilgo Alkateak gutun bat jaso zuen Argurtzane Solabarrieta Mesa Usurbilgo Alkatearen izenean, Zubietako errauste-planta probaldi fasean martxan jarri dutela eta.


Gutun horretan Usurbilgo Alkateak honako eskaera egiten dio Zizurkilgo Alkateari:

Hauxe da egin nahi dizudan eskaera: Alderdien arteko eztabaida eta logiken gainetik, karguak ematen digun konplizitateaz, Zubietako errauste-plantaren gaia zure herriko udalbatzarrerara eramatea. Nahi-nuke itxikeria politikorik gabe eta herritarren ongizatea oinarritzat hartuz, gai honi buruzko eztabaida parametro etiko, demokratiko eta ekologikoetan ematea. Halaber, ostegunean izan genuen udalbatza saioan hartu genuen erabakiaren berri emateko baliatu nahi dut gutun hau: egoerarekin kezkatuta eta larrituta, Usurbilgo Udalak abenduaren 13rako manifestazioa deitu du eta zuk ere bat egiteko eskatu nahi dizut. Alboan behar zaituztegu. Gure herria larrialdi egoeran dago eta SOS mezu bat igortzen dizuet.

Kontuan izanda Zubietako Errauste planta Zizurkilgo herri gunetik kilometro gutxira aurkitzen dela eta Ezkeltzuko larre-zelaietatik oso gertu, zentzuzkoa da Usurbilgo Alkatearen eskaerari bide ematea eta gai hau udalbatzara eramatea, bertan eztabaidatua izan dadin.

MOZIOA

1. Zizurkilgo Udalak, kezka eta ezinegona adierazten du Zubietako erraustegiaren jardunaren eraginez herritarren osasunean eta ingurumenean sor daitezkeen kalteengatik.
2. Zizurkilgo Udalak zalantzan jartzen du Zubietako erraustegia azpiegituraren beharra edo premia. Gipuzkoako gizartea egunez egun erakusten ari da gizarte arduratsua dela eta adibidez Zizurkilgo lortu diren birziklatze-tasak Gipuzkoa osora hedatuz gero, ez litzateke errausketa plantaren beharrik izango.
3. Zizurkilgo Udalak bere elkartasuna adierazten die Zubieta eta Usurbilgo herritarrei, eta bat egiten du Usurbilgo udalak deituta, abenduaren 13an egin zen manifestazioaren mezuarekin.



ZIZURKILGO UDALA



Usurbilgo Udala


Usurbil, 2019ko abenduaren 2an

Alkate estimatua:

Ondo dakizu herri baten egunerokoan zenbat gorabehera sortzen diren. Alkatetzak, poz eta esker oneko uneekin batera, buruhaustea ere ekartzen dizkigu. Horregatik, karguaren konplizitateak elkar ulertzea erraztuko duelakoan, zuregana zuzentzen naiz nire kezka azaltzera.

Lehengo ostegunean probaldi fasean jarri zuten Zubietako errauste-planta, hain justu, Europako Legebiltzarrak klima larrialdia deklaratu zuen egun berean. Egunotan Madrilen bildu dira munduko agintariak, larrialdi klimatikoari aurre egiteko politika zehatzak zehazteko. Gaia serioa eta kezagarria ez balitz, usurbildarro inork gustu txarreko broma egin digula dirudi. Baina, tamalez, ez da broma, ez. Oso kezkatuta gaude, egunero errauste-plantaren tximinietatik ateratzen diren ke-zutabe erraldoiak ikusten ari baikara, beheko irudian ikusiko duzun bezala. 8 urteko alabak egunero galdetzen dit: "Ama, zergatik egin dute? Txarra da?". Herriko haurrek duten kezkaren isla da.





ZIZURKILGO UDALA



Usurbilgo Udala

Zubieta, argitu dezagun, udalerrri izaerarik ez duen herrixka da. Administratiboki bitan banatuta dago: parte bat Donostiaren menpekoa da, eta bestea Usurbilen menpekoa. Geografikoki Oria ibaiaren ertzean dago, eta Lasarte-Oria eta Usurbilgo herriguneak ditu gertuen. Donostiako erdigunea hamar bat kilometroko distantziara dago.


Errauste-plantaren proiektuak izan dituen gorabeheretan ez naiz sartuko, baina uste dut arazo etiko, demokratiko, ekologiko eta ekonomiko latz baten aurrean gaudela. Inork ez du aldamenen nahi, eta, hala ere, derrigorrean egin beharrekotzat saldu zaigu.

Dilema etiko horrek dimentsio latza hartzen du errauste-plantak eragiten dituen osasun-eta ingurumen-kalteak aintzat hartuz gero. Ikerketa asko daude argitaratuta, aldizkari serio, fidagarri eta modernoetan, errauste-plantaren osasun-kalteak nabarmentzeko eta ebidentziaren mailara eramateko. Berriki, Zubieta Lantzen elkarteak, errauste-planta martxan jarri aurreko azterketa zientifiko bat egin du. Kutsagaiak neurtzen hasteko, bi ikerketa-lerro zabaldu dituzte, errauste-plantaren zero gunetik hurbil dauden herrietan; oilategietan laginak hartu dituzte, dioxinak neurtzeko, eta Usurbil, Lasarte-Oria zein Andoaingo ama taldeek bularreko esnea eman dute aztertua izan dadin. Azterketa hauek martxan jarri aurretik eta martxan jarri ondorengo urteetan errepikatu nahi dituzte. Ikusteke, beraz, zer dioten, gure kasuan. Administrazio publikoaren ardura euren gain hartu dute herritarrek, eta, zentzu horretan, bada txalotzekoa eta azpimarratzekoa euren jokabidea. Errauste-plantak eragin dezakeen kezkaren beste adibide bat baino ez da.

Izango da ikerketa horiei sinesgarritasuna kentzen dienik (gainera, ez dugu zertan denok iritzi bera eduki), baina, osasunaz ari garela, arrisku hutsak aski behar luke arduraren eta prebentzioaren printzipioa aplikatzeko beste ezeren aurretik.

Osasunak eta ingurumenak kezkatzen nau gehienbat, gaurko eta biharko herritarrek jasan dezaketen eragina eta ondorengo belaunaldiei utziko diegun mundua. Ardura instituzionala dugun guziok dugun kezka izango dela ulertzen dut. Ez dut dudarik

Aitortuko dizuet, edonola ere, ez dela kezka bakarra, proiektu honetaz ari garelarik. Beste bi alderdik ere arduratzen naute: batetik, proiektuaren kostu ekonomiko handiak eta horrek udaloi eragingo diguna; bestetik, Europak etorkizunerako markatzen dituen direktibei entzungor eginez, Gipuzkoako hainbat herritan abiatutako hondakin-



ZIZURKILGO UDALA



Usurbilgo Udala

tratamendurako bide jasangarriari muzin egiteak. Alderdi humano, sozial, ekologiko, eta ekonomikotik begiratuta, atzerapauso izugarria da errauste-planta martxan jartzea.

Gipuzkoako gizartea egunez egun erakusten ari da ez dela behar halako azpiegiturarik. Hainbat herritako birziklatze-tasak Gipuzkoa osora estrapolatuz gero, kitto, bukatuta legoke eztabaida. Garbi dago, beraz, zein den bidea. Horregatik, zentzu betea du herrian entzuten den esaldi honek: *"Burua duenak ez du ondoan nahi eta bihotza duenak ez du inon nahi."*

Azken batean, hondakinak kudeatzeko dugun moduak eta, zer esanik ez, dilema etiko, demokratiko eta ekologiko baten aurrean hartzen dugun jokabideak, garbi islatzen dute zer garen, nolakoa den gure izaera kolektiboa.

Horiek horrela, hauxe da egin nahi dizudan eskaera:

Alderdien arteko eztabaida eta logiken gainetik, karguak ematen digun konplizitateaz, Zubietako errauste-plantaren gaia zure herriko udalbatzarrerara eramatea. Nahi nuke itxikeria politikorik gabe eta herritarren ongizatea oinarritzat hartuz, gai honi buruzko eztabaida parametro etiko, demokratiko eta ekologikoetan ematea. Halaber, ostegunean izan genuen udalbatza saioan hartu genuen erabakiaren berri emateko baliatu nahi dut gutun hau: egoerarekin kezkatuta eta larrituta, Usurbilgo Udalak abenduaren 13rako manifestazioa deitu du eta zuk ere bat egiteko eskatu nahi dizut. Alboan behar zaituztegu. Gure herria larrialdi egoeran dago eta SOS mezu bat igortzen dizuet.

Besterik gabe, jaso ezazu nire agurra eta esker ona.

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Usurbilgo Alkatea